

Lanorduko batez besteko diru-sarreraren aldeak behera egin du desgaitasunik ez duten eta desgaitasuna duten pertsonen artean 2015etik 2018ra

Eustatek adierazle berriak gehitzen jarraitzen du, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburu eta helmugetaranzko aurrerabidearen berri emateko

Eustatek jarraitzen du konpromisoarekin etengabe zabaldu eta banakatzeko adierazle estatistikoek multzoa zeinek Euskal AEn kuantifikatzea ahalbidetzen baitu Nazio Batuen *Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako* 169 helmugen eta 17 Garapen Jasangarriko Helburuen lorpen-maila.

Oraingoan, 26 adierazle estatistiko berri sartu dira. Estatistika-adierazle horietako 11ren metodologia guztiz bateratu da Autonomia Erkidegoekin lankidetzan. Gainerako adierazleak, 15 guztira, Nazio Batuen jarraibideen arabera zehaztu dira, eta, duten garrantziagatik, Euskal AErako kalkulatu dira. Alde horretatik, nabarmentzekoa da Euskal AEko estatistika-sistemak duen indarra, zeren bere ekoizpen propioari esker estatistika-adierazle ugari kalkula baitaitezke.

[Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak hedatzeko Eustaten plataforman](#) jasotako adierazleen artean, desgaitasuna duten eta desgaitasunik ez duten pertsonen lanorduko batez besteko diru-sarrerak daude. Adierazle estatistiko horiek Nazio Batuen adierazle hau dute osatzen: ***Pertsona enplegudunen orduko batez besteko diru-sarrera, sexuaren, adinaren, okupazioaren eta desgaitasuna duten pertsonen arabera bereizia.***

Helmuga 8.5 2030. urterako, enplegu osoa eta produktiboa eta lan egokia lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea

Adierazle 8.5.1 Pertsona enplegatuen orduko diru-sarrerak, sexuaren, adinaren eta lanbidearen arabera, eta desgaitasunen bat dutenak kontuan hartuta

8

LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Desgaitasuna duten pertsonen batez besteko diru-sarrerak, lanorduko				
	2015	2016	2017	2018
Euskal AE	14,10	13,30	13,70	15,40

Desgaitasunik gabeko pertsonen batez besteko diru-sarrerak, lanorduko				
	2015	2016	2017	2018
Euskal AE	18,50	18,30	18,60	19,00

2030 AGENDA KO GARAPEN JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK

Egiaztatu da ezen lanorduko batez besteko diru-sarrerak handiagoak direla 2018an 2015ean baino, hala desgaitasuna duten pertsonentzat nola desgaitasunik ez dutenentzat. Desgaitasuna duten pertsonen orduko diru-sarrerak 14,10 eurokoak ziren 2015ean, eta 15,40 eurokoak 2018an. Desgaitasunik ez duten pertsonen kasuan, berriz, igoera txikiagoa izan da, 2015ean 18,50 eurokoak izatetik 2019an 19,00 eurokoak izatera igaro baitira. Horren ondorioz, desgaitasunik gabeko pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen arteko aldea murriztu egin da aztertutako aldian (4,40 euro 2015ean, eta 3,60 euro 2018an).

Euskal AEko pertsonen % 7,57 osasun-gastu handiak dituzten familia-etxeetan bizi dira, 2020an familia-etxearen guztizko gastuaren % 10 baino gehiagokoak.

Helmuga 3.8 Osasun-estaldura unibertsala lortzea, finantza-arriskuen aurkako babesa barne, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea barne, eta kaltegarriak ez diren eta guztiontzako eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak diren medikamentu eta txertoak eskuratzeko aukera barne				
Adierazle 3.8.2 Etxebizitzan osasun-gastu handiak dituen biztanleriaren proportzioa, etxebizitzetako gastu eta diru-sarrera guztien ehuneko gisa				
3 OSASUNA ETA ONGIZATEA 	Osasun-gastu handiak (familia-etxearen guztizko gastuaren % 10etik gorakoak) dituzten familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa			
	2015	2018	2019	2020
	Euskal AE	6,76	6,95	8,22
Osasun-gastu handiak (familia-etxearen guztizko gastuaren % 25etik gorakoak) dituzten familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa				
	2015	2018	2019	2020
	Euskal AE	1,59	1,66	0,93

Oraingoan gehitutako informazioaren barruan, bi estatistika-adierazle berri daude, Nazio Batuen **Familia-etxe bakoitzeko osasun-gastu handiak dituen biztanleriaren proportzioa, familia-etxeen guztizko gastuen edo diru-sarreraren ehuneko gisa** adierazlearen berri ematen dutenak: osasun-gastu handiak dituzten familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa, familia-etxearen guztizko gastuaren % 10etik eta % 25etik gorakoak.

Igoerarik ikusten da familia-etxeko gastu guztien % 10etik gorako osasun-gastua duten familia-etxeen ehunekoan: 2015ean % 6,76 zen, eta 2020an, berriz, % 7,57. Halaz ere, aztertutako aldian, osasun-gastua familia-etxeko gastu osoaren % 25 baino handiagoa den familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa % 1,59 zen 2015ean, eta % 0,93, berriz, 2020an.

Adierazle berri horien bidez, halaber, orain arte Euskal AEn monitorizatu ez diren Nazio Batuen helmugen berri ematen da. Izan ere, **Enpresa txikiei dagokien manufaktura-sektorearen guztizko balio erantsiaren proportzioa** estatistika-adierazlea sartu da, Nazio Batuen 9.3 helmugari buruzko informazioa ematen duena (*Industria txikietarako*

2030 AGENDA KO GARAPEN JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK

eta beste enpresa batzuetarako sarbidea handitzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan, finantza-zerbitzuetara, kreditu eskuragarriak barne, eta balio-kateetan eta merkatuetan integratzea). Adierazlea, gainera, Lurraldeka bereizirik aurkezten da.

Helmuga 9.3 Industria txikiek eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak, arrazoizko kredituak barne, lortzeko dituzten aukerak areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta industria edo enpresa horiek balio-kateetan eta merkatuetan sar daitezela ahalbidetzea

Adierazle 9.3.1 Industria txikien proportzioa, industria sektoreko balio erantsi osoan

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIGITUAK	Enpresa txikiei dagokien manufaktura-sektorearen balio erantsi osoaren proportzioa			
	2015	2017	2018	2019
Euskal AE	23,92	23,72	22,97	22,35
Araba / Álava	16,95	17,35	16,72	16,34
Bizkaia	26,87	26,03	25,65	24,99
Gipuzkoa	25,27	25,30	24,07	23,26

Enpresa txikiek sortutako manufaktura-sektorearen balio erantsiaren proportzioak behera egin du hiru lurraldeetan 2015. urtetik 2019.era. Araban, 2015ean % 16,95 izatetik 2019an % 16,34 izatera igaro da; Bizkaian, % 26,87 izatetik % 24,99 izatera, eta, azkenik, Gipuzkoan jaitsiera zertxobait handiagoa izan da, % 25,27tik % 23,26ra.

Informazio-oharra. [Euskal AEko Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak hedatzeko Eustaten plataforman](#) adierazle berriak etengabe sartzeko lanean jarraitzen dugu, bai adierazleen banakatzeko eskaintzeko, bai orain arte bete ez diren helmugen berri ematen duten adierazle berriak sartzeko.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62